

Gazte olatua

Gazte olatua. Mugimendua behar da olatu bat sortzeko, uhinak eta uhinen arteko interakzioa. Horrek sorrarazten du inertzia eta olatu bat ez, olatu asko sor daitezke.

Hizkuntza olatu bat balitz, komunikazio uhin jarraikor bat, euskara ez litzateke ozeano bat, ezta zabalera ikaragarria duen ibai bat ere... Zer ginateke? Arrainontzi bateko zurrumbilo bat? Bainera bat? Itogin bat? Pasaran datorren hodei euritsu bat?

Gazte askori gertatu zaigu euskaraz bizi nahi izan eta geuok gazteok jarritako mugengatik euskaraz ezin egitea. Ohikoa izaten da hori Euskal Herri osoan eta gure herrian ere bai. Zergatik ez dugu euskaraz egiten? Autokritikaz betetako zerrenda bat egin genezake, munduko globalizazioaz eta kapitalismoaz jardun, edo gure auzoetan erderaz dabiltzan beste gazte batzuen aurrean muturra okertu. Baina, ondo pentsatuta, ez dago berezko aitzakiarik, ez ibili ur handitan. Norberaren erabaki kontziente bat da, besterik ez.

Kendu euskara zuen bizitzetatik, fuera. Ne parle pas. Quitarlo de vuestras voces. Imaginaos que nunca ha existido. Hau utopia bat da. Existitu da, existitzen da. Baina gure inguruko errealtate bat ere bada euskara ikusezina izatea. Eta “aupa hi, que haces” edo “bai, pero...” batekin ere ez dago, fuera.

Esan nahi duzuna zein hizkuntzetan adierazi nahi duzu? Zein hizkuntzetan entzun? Hizkuntza batek duen onena *esateko* aukera da. Nola esaten den, zein erregistrotan, zein bolumenetan, zein kantetan, zein plazetan, zein ordutan, zein liburutan, zein emotikonorekin, zeinen aurrean, zeinen belarrian, zein keinurekin... *Esatea* da onena.

Eta *esate* hori edozein hizkuntza erabiliz egin daiteke, dakizkigunetan behintzat bai. Eta hor dago hautu kontzientea. Euskaraz kontatuko duzu mugimendua behar dela olatu bat sortzeko? Eta euskaraz errepikatuko duzu *esatea* eta *nola esatea* dela hizkuntza batek duen onena?

Mugimendua behar dugu guk ere. Pasaia osoak, gazte guztiek: euskara hazten saiatzen ari den barrutietan eta ustez oso euskalduntzat ditugun barrutietan ere bai. Ez dugu badian itsasikara bat egingo, edo bai?

Arrainontzi bateko zurrumbiloa edo bainera bat izan, guk sortzen dugu olatua. Olatu bat ez, olatu asko lor daitezke.